

LIBURUTEGIEN Euskal Sistema

Mailegu digitala abian jartzea zen legealdi honen lehentasunezko helburuetariko bat. Horren bitartez, beharrezkoa zen zerbitzua martxan hasi da eta herritarrek liburutegiei eskatzen ziotenari erantzun bat eman zaio.

eLiburutegia da liburutegi-zerbitzu berri hau posible egiten duen egitasmoa, eta Euskadiko Irakurketa Publikoa osatzen duten liburutegietako langileen lanari eta konpromisoari esker aurrera atera da. Horrela, lehen aldiz, hainbat izenburuz osatutako aukeraketa zabal eta zorrotza eskaintzen da, formatu fisikoan zein digitalean.

Proiektu berri orok bezala bere ibilbidea bete behar du. Horretarako, hainbat ekintza aurreikusi ditugu 2015ean zehar garatzeko, bai Sareko liburutegietako profesionalen artean bai eta liburutegi publikoetako erabiltzaileen artean ere.

Liburutegi Zerbitzutik Sareko profesionali laguntza eman nahi zaie. Batera aurrera egin mundu fisikoaren eta digitalaren –aurrez aurreko zerbitzuen eta zerbitzu birtualen– arteko iragaite bide honetan. Profesionalak eroso sentitu behar dira. Azken finean, joera berriak ezagutu eta menperatzeaz gain, jabetu behar dira liburutegietara doazen pertsonen transmititzeko gai direla.

Bestalde, ahal dugun neurrian erabiltzaileen eskaera berrietara egokitzeko, komunitate irakurle bat osatu nahi dugu, pantailetako irakurketa sustatu, joerak aztertu eta emaitzak ebaluatu, argi izanik herritarrek zerbitzu publikoekin duten harremana Internet bidezkoa dela.

Eta, jakina, Sareko liburutegien arteko elkarlana eta lankidetzaz bezalako gai garrantzitsuak lantzen jarraituko dugu. Kultura auzolanean planaren bidez irakurketa publikoko Euskadiko sarea osatzeko bideak aztertzen ari dira. Hasteko, Santurtziko, Donostiako eta Bilboko liburutegiak EIPSeko liburutegi-kudeaketako sisteman integratzea bilatzen da. Horren bidez, euskal herritarrek liburutegietarako txartel bakarra erabiliko dute.

Mila esker.

Imanol Agote Alberro
Kultura Ondarearen Zuzendaria

Lineako saretik mailegu digitalera



2014ko maiatzean, Liburutegi Zerbitzuak mailegu digitalari buruzko komunikazio jardunaldi bat antolatu zuen Euskadiko Irakurketa Publikoko Liburutegiei zuzenduta.

Jarduera horrekin, EIPSeko liburutegien lineako sarea sortu zenetik hamar urte pasatu zirela aprobetxatuz, urtemuga garrantzitsu hori osatzea eta sareko hainbat profesionalen arteko solasaldia bilatzen zen.

Era berean, bilera horren bidez, sarerako egitasmo berri baten garapena eta abian jartzea azaldu ziren: mailegu digitalaren plataforma.



Javier Celaya kultura digitalean adituak gure proiektuaren egoera auzetzu zuen "Tendencias en modelos de préstamo digital en bibliotecas: Cómo fomentar la demanda de préstamo de ebooks" izenburuko hitzaldi bikainean.

Mailegu digitala liburutegietako erabiltzaileek eta sareko profesionalek askotan eskatutako zerbitzua izan da. Horren ildotik, gogorazi "Liburutegi-zerbitzuak" ikerketaren lehendabiziko emaitzen arabera, herritarren eskakizun bat zela eta liburutegiek zerbitzu hori eskaintzeko beharra ikusten zutela.

Horrela, eLiburutegia 2014ko apirilean Euskadiko editoreen eta Eusko Jaurlaritzaren artean sinatutako akordio baten emaitza da. Bere helburua honakoa da: euskarazko eta gaztelaniazko eduki digitaletarako sarrera bermatzea eta irakurtzea sustatzea irakurketa digitaleko gailu berrietan.

Editoreen eta liburutegien arteko adostasunak irakurleen heziketan emaitza oso positiboak lor ditzazke.

Liburutegietatik, irakurtzea eta mailegu digitala sustatzeaz gain, deskarga eta irakurketa ohitura legalen sorrera eta sendotzea lor daiteke modu eraginkorrez. Batez ere, sektorean hainbat eragin duten legez kontrako deskarga horiei aurre egiteko.

Beste hitz batzutan esanda: legez kontrako edukiak deskargatzen dituzten irakurleak liburu digitalen etorkizuneko bezero legal bihurtu nahi dira.

Beste behin ere, egitasmo hau EIPSeko liburutegien konpromisoari esker posible izan da. Sareko profesionalen ekarpenak, iradokizunak eta izenburuen hautaketa ezinbestekoak izan dira proiektu estrategiko hau martxan jartzeko, zeinetan editoreak, liburutegiak eta irakurleak ardatz nagusiak diren. Izan ere, horien bidez aipatu zerbitzuaren eragina ebaluatuko da.

2014an katalogoan egindako kudeaketak:

- **195 argitaletxe**kin harremanetan jarri.
- Antzemandako **28.000** liburu elektroniko.
- Kudeatutako **46** argitaletxe.
- Osatutako prozesuak: **14**.
- **4.500** izenburu erabilgarri.

eLiburutegia 2014ko azaroaren 26an abiarazi zen. Lehendabiziko bi hilabetetan honako datuak atera dira:

- Mailegu-kopurua: **4.232 mailegu**.
- **3473 erabiltzaile** hartu du libururen bat maileguan.

Maileguak liburutegi bakoitzeko

Gasteiz	565
Getxo	210
Eibar	156
Durango	112
Zarautz	101
Arrasate	100
Barakaldo	99
Hernani	88
Errenteria	85
Irun	80

Libururik mailegatuenak

Ahaztuen mendekua	Alberto Ladron Arana	Elkar	21
Arotzaren eskuak	Alberto Ladron Arana	Elkar	20
Amaren eskuak	Karmele Jaio Eiguren	Elkar	20
A la sombra del templo	Martínez de Lezea, Toti	Maeva	20
Adulterio	Paulo Coelho	Editorial Planeta	19
Aulki bat elurretan	Uxue Alberdi Estibaritz	Elkar	18
¡Abajo el colegio!	Geoffrey Williams	Impedimenta	18
Ez naiz ni	Karmele Jaio Eiguren	Elkar	17
Bilbao-New York-Bilbao	Kirmen Uribe Urbieta	Elkar	17
La pulga de acero	Nikolái Leskov	Impedimenta	16



Hamar Urte, Hamaika Lorpen...

Eta urtebetetze-pastelari azken ukitua emateko: eLiburutegia! Noiz eta Sarean 10 urte bete berri ditugunean, ospatzeko modukoa dena, beste errealitate baten aurrean gaude: zerbitzu berri hau, hainbatetan eskatua, oso beharrezkoa eta gurea. Izan ere, ez gara ezeren aurrean kikiltzen!

Denbora luzea igaro da, lagunok. Orain badirudi beti horrela egin dugula lan, Interneten bidez, sarean, liburutegien arteko mailegu zerbitzu eredugarria eta 2.0 liburutegiak izanik. Baina ez, inondik inora ere ez. Bidea luzea izan da, mal-kartsua eta bidezidorrik gabekoa.

EIPSen (izena ere aldatu du urteotan) lan egiten dugunok gazteagoak eta esperientziarik gabeak ginen duela 10 urte; gutxi ginen eta bakarrik geunden; gainera, arrotzak ginen mundu digital honetan. Orain gehiago gara; gehiago dakigu; balio handiagoa daukagu (ahaldundu egin gara; bai, hain modan dagoen hori egin dugu) eta, beldur gutxiago ditugu. Izan ere, 10 urteotan, behin baino gehiagotan salto egin behar izan dugu (sare batera, hori bai, ez baikara "suizidak"): bat egiteak, kontsentsuak; aldaketa politikoak; parte hartzea; prestakuntza; bertsio, zerbitzu, eta ingurune berriak, eta gero eta digitalagoak...

Orain, bigarren hamarkada honetan oso erronka garrantzitsu bati ekingo diogu aurre: erabateko Sarea izateari; Bilbok, Donostiak eta falta diren gainerako herriek bat egingo dutelako, aspaldidanik espero genuenez eta beharrezkoa zenez. Azkenean, Irakurketa Publikoko Sarea izango gara, gure erabiltzaileentzat ulertzeko hain zailak diren horietariko salbuespenik gabe.

Hau aurrera doa! Elkar ezagutu izanaz pozik egon gaitezke, lagunok.

*Anabel Regalado / Maria Antxia
Getxoko Liburutegia*

Irakurketa erraza Elgoibar

25 urteko gure lan eskarmentuari esker, Liburutegian, irakurketarekin gozatu ezin duen jende ugari topatu dugu, hainbat arrazoi tarteko. 2012an, zailtasun horiei aurre egiteko materiala argitaratzen hasi zirela ikusita, gogor ekin genion "Irakurketa Erraza" proiektuari.

Irakurketaz gozatzeko era bakarra irakurtzea da. Irakurketak informazioa, ikasketa eta aisia bateratzen ditu, eta helburu hauek betetzea da Irakurketa Errazeko (IE) taldeen benetako arrakasta. Irakurtzea eta irakurketarekin gozatzea da gure nahia.

Elgoibarren IEko lau talde ditugu abian gaur egun. Batzuetan, gu joaten gara zentroetara, eta besteetan, haiek etortzen dira liburutegira. Lan dinamikak ere anitzak dira, taldeak oso ezberdinak direlako. Taldeko irakurketa lantzen dugu eta honekin parte-hartzea eta inklusioa lortzen ditugu. Ozenki irakurrita, partaideek beldurra gainditzea, besteei entzuten ikastea eta bakoitzak bere esperientziak azaltzea lortzen dugu; baina batez ere, irakurketarekin gozatzea.

Eguneko zentroko taldea, auzokoa izanik, martxan jarri genuen lehena izan



zen; astelehenero joaten gara ordu betez. Parte-hartzailetako askok talde honetan aurkitu dute irakurtzeko grina, eta honek bere bizipenak kontatzen laguntzen die.

Bigarren taldea Sartu-Zabaltzen eguneko zentroko gazteena da. Eguneko zentro honetan gizarteratze arazoak dituzten gazteek parte hartzen dute. Hala, irakurketa mota honek duintasuna indartzen eta autonomia lantzen laguntzen die. Taldeko irakurketari esker, talde bat osatzen dutelako sentipena dute.

Zig gelako taldea, berriz, asteartero bertaraten da liburutegira. Talde honetako kideak hunkituta, hasperen egiten eta historiaren nondik norakoen zain ikusi ditugu. Pixkanaka beraiei iritziak emateko erraztasuna lortzen, eta batik bat, irakurketarekiko zaletasuna eskuratzen ari dira.

Azkenik, laugarren taldea San Lazaro Zaharren egoitzakoa da. Talde hau oso berria da, eta gure laguntzarekin, irakurketa errazaren arloan prestatuta dagoen bertako langile batek dinamizatzen du.

Hau guztia egiteko borondatea eta lanerako gogo ona besterik ez dira behar. 0 euroko aurrekontuarekin, lan honetan ahaleginduta, lehen liburutegira inoiz hurbilduko ez ziren herrikideak erakarri ditugu bertara.

*M^a Eugenia González / Miren Arocena
Elgoibarko Liburutegia*

Fernández Blanco argazki-fondoa Liburukliken



Bi mila eta hamaikako udan, Jaime FERNÁNDEZ BLANCO jaunaren seme-alabekin harremanetan jarri ginen, María Rosa eta Juan Manuel FERNÁNDEZ MUÑOZ, haiek direlako beren aitaren argazki-fondoen oinordekoak eta gordailuzainak.

Hurbilketa horren arrazoia baimena lortzea da Irun hiria mila bederatzi ehun eta hogeita hamaseian suntsitu zuen sutearen hirurogeita hamabosgarren urtemuga oroitzea, aipatutako argazki funtsaren zati bat erakusteko.

Erakusketa diskretua eta arrazoitua planteatu zen, bertan suntsitutako hiri baten bizimodua erakutsi nahi zen; izan ere hiriak egoera gaunditzen eta suntsipen eta zoritxar hondakin haiekin bizitzen jakin zuen.

Erakusketa bi mila eta hamaikako azaroan egitea planteatu zen, baina izan zuen arrakasta ikusita, erakusketak abendura arte luzatu zen.

Fernández Muñoz familiarekin izandako lankidetzak estuaren ondorioz, bere fondoaren hautaketa zabalago bat egiteko baimena lortzeko aukera ikusi zen, irudi horiek **Tokiko Bilduma atalean** sartzeko, eta Administrazioaren aldetik segurtasun eta berme handiagorako, aipatutako lagapenari Hitzarmen forma ematea erabaki zen.

Uen honetan, bat dator gure Liburutegiko bitartekoak **LIBURUKLIK**-en sar-

tzeko egiten ari garen parte-hartzean eta badirudi komenigarria eta gomen-dagarria dela hau bezalako bilduma birtual bat udalaren esparrutik harago dagoen babespean eta kontrolpean dagoen ingurune batean, udaleko Liburutegiko fondo bibliografikoekin gertatzen den bezala.

Gainera, dokumentu biltegi hau **HISPANA** atalean integratzen da eta, aldi berean, biltegi hori tamaina eta eduki handiagoko beste baten barruan sartzen da, **EUROPEANA** izenean.

Liburutegia tokiko dokumentu zentro informazioaren gizaratean

Liburutegiaren rol tradizionala, komunikazioaren parte den aldetik, herentzia kulturala gordetzea eta transmititzea da. Liburutegiak beste kultur sistemetako balioak komunikatu ahal ditu naturalki eta, hortaz, hala egin behar du; baina bere kulturaren jarraitasunetik eta balio sistematik gehiagorik urruntzen bada, zailtasun handiak aurkituko ditu.

Bertako bilduman eta esparru horretan bakarrik hartu ahal da liburutegi bereizitako liburutegi publikoa.

Tokiko fondoa ikerketa liburutegitza eta dokumentazio fondotzat hartu behar da.

Tokiko bilduma informazio espezializatuaren informazio zentrotzat hartu behar da; hain zuzen ere, bertan dauden dokumentuak testigantza historiko-kultural gisa duten balioan daude oinarrituta, baita tokiko konexioan ere. Dokumentu horien euskarria eta izaera edozein formatutan eskaintzen da, eta hori dela eta, atal edo liburutegi horiek multimedia izaerako bitarteko zentroak dira bibliotekonomia terminoa sortu baino lehenago.

Liburutegi publikoaren tokiko bildumaren indarraldia eta garapena gero eta handiagoa da, fondo honetakoa izateak duen garrantziagatik eta jakintza zein teknologia hain azkar aurrera egiten duten mundu batean –



zeinetan profesional espezializatuak bakarrik lortzen dute gai bati buruzko argitalpen kopuru izugarriak indibiduoak erreferente hurbilagoak behar ditu ezagutzaren sistematizazioa kanalizatu ahal izateko eta, aldi berean, sozialki bereizten duen nortasun historiko-kultural bat forjatu informazioaren gizarateak duen jarrera homologatzailearen aurrean.

Gaur egun, Ezagutzaren eta Informazioaren Gizarateak eragina du liburutegietan, haien parte direlako beste edozein agente baino gehiago.



Liburutegia era aktiboan eta partizipatiboan sartzen da ezagutzaren eta informazioaren gizarte honetan.

Informazioa, informazioaren gestioa, antolamendua, biltzea eta erabiltzaile guztienganako transferentzia -erabiltzailea edozein delarik ere eta fisikoki edonon dagoelarik- garrantzitsuena bada gizarte berri honetan, liburutegia eskubide osoz eta kide aktiboenetako gisa sartu behar da gizarte berri honetan.

Liburutegi publikoak eskura eta euskarri digitaletan dagoen informazio elektronikorako berdintasunezko irismena ematen dio gizarteari, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko beharrezkoa den informazioa ematen die erabiltzaileei, teknologia horiek ezagutzen eta ezagutzen ez dutenen arteko mugak ezabatuz, eskatzen dutenei orientazioa eta gida eskaintzen die Sarean eskuratzeko moduan dauden informazio bitartekoak kokatzeko, hautatzeko eta baloratzeko, eta komunitateen kultura ondarea gordetzen eta hedatzen laguntzen dute, Interneten tokiko informazio hornitzaile bihurtuz.

Gure bilduma honetan mila argazkitik gora gabiltza eta gure hiriko historian gertatu diren zenbait ekintza ez ahazteko baliabidea dugu.

Zorionez, gure Liburutegiak Liburukliken beste bilduma bat du, baina horri buruz beste batean hitzgingo dugu.

Iñaki Ceberio
Irungo Liburutegia



OPACaren kontsultak izugarri igo dira

Euskadiko Irakurleta Publikoko Sareak 2014an aurkeztu dituen datu estatistikoak positibotzat jo daitezke.

Pasa den ekitaldiko ezustekorik handiena OPACak izan dituen kontsulten kopuru handia izan da. 2013an egin-dako 1.198.754 bilaketatik 1.636.044 bilaketara pasatu da. Datu horiek oinarritzko zerbitzu horren garrantzia indartzen dute, eta era berean agerian uzten dute bilaketa eta kontsulta bibliografikoa beharrezkoak direla edozein liburutegitan.

Liburutegien arteko maileguak ere estatistika oso positiboak azaltzen ditu. Aurreko ekitaldian zenbaki positiboak eskaini bazituen ere (%43,55ko gorakada dela medio), 2014an EIPSeko liburutegien artean 72.088 ale garraiatzetik 80.603 ale garraiatzera pasatu da. Ilde horretan, nabarmendu behar da sareko liburutegi guztiak LAM zerbitzuaren barruan egongo balira -liburutegiei buruzko legearen arabera derrigorrezkoa da gainera datu horiek askoz ere garrantzitsuagoak izango liratekela.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko maileguek, aldiz, beherakada pairatu izan dute beste behin ere: 2013an 1.923.201 mailegu egin baziren, 2014an 1.834.394 egin dira. Horrela, azken bi urtetotako beheranzko joera mantentzen bada horren zergatia ezagutzeko azterketa zehatzagoa egitea zilegi litzateke.

Bestalde, 26.954 erabiltzaile berri zenbatu dira sarean. Ondorioz, 570.000tik gora daude jada, eta aurreko urteetako datuen joera birpasatu ostean litekeena da 2015 urte amaierarako 600.000 erabiltzaile inguru lortzea.

Horrekin batera, 178.020 ale gehiago eman dira altan. Ondorioz, EIPSeko funtsa 4.378.601 alek osatzen dute.

Aldi berean, 22.066 titulu berri gehitu dira (iaz baino 3.500 gehiago) eta orotara 677.204 dira funtsa osatzen dutenak.

Azpimarratzekoa da ere, pasa den urtean martxan jarri den eLiburutegiak beste datu garrantzitsua eskainiko digula aurrerantzean. Horrela, liburu digitalen plataforma ofizialki abiatu zenetik (azaroak 26) eta 2014. urtea amaitu arte 1.800 liburu elektroniko deskargatu dira gutxi gorabehera.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareak Getariako Udal Liburutegian duen eragina

Jarraian, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuaren ekimenez, Getariako Udal Liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean (EIPS) bizi duen egoera partekatuko du, betiere, liburutegi txiki bat dela kontuan hartuta¹.

Getariako Udal Liburugiaren aurkezpen laburra

Getariako Udal Liburutegia (GUL) 1986. urtean jaio zen, Kultur Etxeko 1. pisuan dago eta herritar guztiei zerbitzua ematea du helburu nagusi (haurren eta helduen saila, eta KZ Gunea dauzka).

Gaur egun liburutegiak zerbitzu hauek eskaintzen ditu²: kontsulta, informazioa, maileguak, berriztapenak eta itzulketak, erreserbak, liburutegien arteko mailegua, desideratak eta erreklamazioak, Internetarako sarbidea eta kultur ekintzak. Zerbitzu horietako asko ohikoak eta liburuzaintzako ezagunak direnez, banan-banan definitu beharrean, GULen dauzkaten

berezitasunak aipatuko ditugu³. Liburutegi honek irakurleekin **gertuko harremana** dauka eta aipaturiko zerbitzuak aurrez aurre (liburutegian bertan) edo on-line (urrutitik) jaso daitezke (mailegua eta Internetarako sarbidea izan ezik); liburutegiko konturen batera idatzita (posta elektronikoa, facebook-a, twitter-a eta bloga) edo telefonoz deituta. Eskaera bakoitzari zuzenean, ahalik eta azkarren, **kalitatez eta seriotasunez** erantzuten zaio. Kontrataturako langilea zeregin horietarako propio prestatuta dago: beharrezko ikasketak, lan-esperientzia eta ezagutza ditu (Liburuzain, Informazio eta Dokumentazioko ikasketak eta udal liburutegietan lortutako lanesperientzia). "Nahi izatea ahal izatea da" du lema eta **jarrera**.

Aipagarria da Getariariako herritarrek, Udalak zein funtzionarioek, EIPSak, Koldo Mitxelena Kulturuneak eta beste hainbat erakundek daukaten **aldez aurretiko jarrera ona**⁴. GUL agente horiekiko guztiekiko harremanari eta **elkarlanari** esker eraikitzen, elikatzen

eta mantentzen da. Getariarrek gauza asko egiten dituzte liburutegiaren alde. Lehena eta oinarritzkoena, bertara joatea eta erabiltzea da. Baina horretaz gain, aldaketak egin daitezkeela pentsatzeak sortzen dien **ilusioarekin**, liburutegiari hainbat eratako eskakizunak eta dohaintza garrantzitsuak egiten dizkiote, bertan antolatutako kultur ekitaldietan parte hartzen dute, eta badira **irakurketa-zaletasunak** bultzatuta ekile eta protagonistak bihurtzen direnak ere (esaterako, hainbat herritarrek ipuinkontaktak antolatu dituzte).

Getariako Udalak eta bere funtzionarioek ere, liburutegiko aldaketak sustantzen eta laguntzen dituzte daukaten **gaitasun betearazlea** erabiliz (langileriaren kontratazioa, espazioaren birrantolaketa, 2015 urterako aurrekontuaren hornikuntza, departamentuen arteko elkarlana, ...).

EIPSaren laguntza behar-beharrezkoa da baita ere GULen egunerokoan (hurrengo atalean garatuko dugu gai hau), bai arduradunena eta baita EIPS osatzen duten liburutegiena ere. Bien arteko **komunikazioa** etengabea da, eta euren **aholkularitza eta zerbitzuak** nahitaezkoak dira GULentzat. Koldo Mitxelena Kulturunea liburutegia ere **maiztasun eta prestasun handiz** aritzen da GULEkin elkarlanean liburutegien arteko mailegu zerbitzuaren bitartez. Azkenenik, beste hainbat erakundek (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, udalak, kutxak, etab.) liburutegiari liburuak ematen dizkiote, **beronen funtsa handituz**.

Zer nolako eragina du EIPSek GULen?

EIPSek eskaintako baliabide eta zerbitzuei esker, GUL liburutegi txiki bat



¹ 2015/01/14an GUL, herriaren biztanleria (2804 hiritar) eta liburutegiaren ezaugarriak kontutan hartuta (108 m², 12439 funts, astelehenetik ostiralera 3 orduz irekita, langile bat) liburutegi txikitat hartzen da.

² GUL zerbitzu gehiago eskaini ahal izateko ari da lanean (erabiltzaileen formakuntza, eskola-bisitak, fotokopia zerbitzua, WIFI bidez Interneteko sarbidea, etab.).

³ GULEk eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazio gehiago ikusteko, hemen sartu:

<http://liburutegiak.blog.euskadi.net/getaria/lang/eu/getariako-liburutegiabiblioteca-de-getaria/>

⁴ GULEk etorkizunean kolaboratzaileak bilatzen jarraitzeko asmoa dauka.



baino askoz gehiago da⁵: eguneroko lanetan aholkularitza eta laguntza, langileen prestakuntza, Absysnet bidezko liburutegien sareko kudeaketa. lan-tresna homogeneo eta komun erabilera, hainbat katalogo eta artxibotara sarbidea, funtsen hornidura, liburutegien arteko mailegua eta mailegu elektronikoa, 2.0 zerbitzuak eta beste hainbat baliabide eta zerbitzu.

Liburutegi Zerbitzuak eta Sarea osatzen duten liburutegi jakin batzuk GULi eguneroko lanetan eskaintzen dioten aholkularitza eta laguntza **mesede handikoak** dira: zalantzak, arazoak eta kezak argitu eta ebazteko; gidatu eta gomendioa emateko; hitzaldiak, mintegiak eta lanbide-heziketa eta birziklatzeko-ikastaroak prestatzeko (asko eta asko **dohakoak** dira eta **eguneratzeko** oso baliagarriak). Guzti horrek ahalbidetzen dio langile bakarra duen liburutegi honi EIPSaren barruan bere independentzia mantentzea. Gainera, sarean egoteak ematen dion **segurtasuna, babesa eta aholkularitza** ematen dizkio.

EIPSaren beste ezaugarrietako bat Absysnet programaren (**liburutegiko lan gehienak kudeatzeko erabiltzen dena**) mantenua da. Hala, antzeko programa baten gastua **aurrezten** da. Bestalde, gainerako liburutegiekin **sarean lan egitea** ahalbidetzen du, haien **katalogazioa erabiltzeko aukera eskaintzen baitu** (bestelako eginkizunetarako denbora irabazten da horri esker). Liburutegi Zerbitzuak aldizka egiten dituen ikuskapen, gainbegiraketa eta hobekuntzetatik onura lortuz. Sarean egiten den lan hau guztia tresna homogeneo komunak erabiltzen direlako da posible: **katalogazio prozedura orokorrak eta espezifikoak**.

EIPSak katalogo eta artxibo **aberatsak**

jartzen ditu ere GULen esku: lehena, EIPSren on-line katalogo orokorra, sarea osatzen duten 250 liburutegitatik gorako funtsak gordetzen ditu; bigarrena, Bilgunea katalogo kolektiboak Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat erakunde publiko eta pribatuak bibliografia funtsak jasotzen dituen; hirugarrena, Liburuklik katalogoa –Euskal Liburutegi Digitala osatzen duten erregistroak biltzen dituen (euskal ondare bibliografikoaren zaintza eta zabaltzea bermatuz) eta liburu elektronikoen eLiburutegia katalogoa; laugarrena, Autoritate Elebidunen Katalogoa, euskal eremuko autoritate eta gai-sarrerak sortzeko erreferentzia dena; eta azkenik, Ondarenet, Euskal Ondare Digitalaren Artxiboa, Liburutegi Zerbitzuak harrapatu, gorde eta indizatu dituen web orrietan bilaketak egitea ahalbidetzen duena.

Baliabide horiek guztiak erabiltzen ditugu GULen egunerokoan. Liburutegiari eta bertako irakurleei **sarbide asko ematen dizkie** (OPACaren bidez) eta **begiratu eta mailegatu daitekeen (mailegu arrunta, liburutegien artekoa eta elektronikoa) katalogo bibliografikoa** osatzen dute (aukeratutako baliabidearen arabera); liburutegiak bere eraikinean biltzen dituen 12439 funtsez gain Bide batez, liburutegiko funtsa, neurri batean, euskarri orokorrak eta Eusko Jaurlaritzak bidalitako titulu berriei esker osatua dela esan behar da.⁶

Duela denbora gutxi arte GULen eskaintzen zen zerbitzu nagusia mailegu arrunta zen. EIPS eta Sareko partaide guztien lankidetzari esker, Getarian liburutegien arteko mailegua eta mailegu digitala ezarri dira, neurri batean liburutegian dagoen **titulu hutsunea leundu eta aukera erabakitzalea ekarri** duena. Liburutegien ar-

teko mailegua liburutegiko irakurleek **gehien eskatzen eta estimatzen** duten zerbitzuaren artean dago; bere **azkartasuna, dohakotasuna eta funts kopuru handia** nabarmentzen dute. Mailegu digitalaren zerbitzuari dagokionez, liburutegiko irakurleek gero eta gehiago eskatzen dute; formatu elektronikoa dauden **titulu kopurua nahiko handia da**, beste aukera bat paperezko liburuarekin batera, eta oso **erakargarria eta eroso** da online kudeatu daitekeelako.

EIPSek GULen duen eraginari gagozkiola, ez dugu ahaztu behar Web 2.0 munduaren susperketa, ordainketa, sostengua eta laguntza (blogen plataforma, Liburutegiak app, OPAC soziala eta sare sozialak). GULi bere jarraitzaileekin (errealak eta potentzialak) komunikazio zuzena izatea eta **informazio asko hedatzea** ahalbidetzen dio.

Azkenik, EIPSak GULi eskaintzen dizkion -eta gerora begira eskatzeko asmoa dauzkan- veste baliabide eta zerbitzu batzuk azpimarratu nahi ditugu: literatur solasaldietarako liburu-sortak; herriko bildumaren digitalizazioa; laguntzak eta diru-laguntzak: funtsak berritu edo/eta handitzeko, irakurketa sustatzeko, teknologia berriak ezartzeko edo/eta garatzeko. Horiek guztiak, lehenago esan direnekin batera, GULentzako finantzaketa eta laguntza handiak dira (Sareko partaide izango ez balitz pentsaezinak liratekeenak): **liburutegi txiki bat baino askoz gehiago egiten duten zerbitzu eta baliabideak eskaintzen dizkio**, GULEko irakurleek txartel bakarrarekin goza ditzakete aukera horiek guztiak.

*Maite Sos Iturrioz
Getariako Udal Liburutegia*

⁵ Euskadiko Liburutegien legeak 20. artikuluko 2. atalean horrela dio: "Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegiek eskubidea izango dute Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumenak dituen sailak irakurketa publikoa bultzatzeko ematen dituen zerbitzuetara irispidea izateko. Funtsean, hauek izango dira zerbitzuak: a) Aholkularitza, lankidetzak eta sostengua, funtsak eskuratzeko orduan; b) Langileak etengabe prestatzea eta beren lanbiderako birziklatzea; c) Bikoiztuta dauden edo sobera diren funtsen trantamendua; d) Liburutegiei laguntza tekniko ematea; e) Euskadiko irakurketa publikoko sarearen katalogo kolektiboa prestatu eta kudeatzea; f) Liburutegiak sustatzea; g) Informazio bibliografiko eta dokumental hautatua eskaintzea; h) Liburutegien arteko mailegua eta maileguaren laguntzarako funtsak koordinatzea."

⁶ GULen funtsen % 38,6 dira.

Helduak

Haurrak

Gaztelania : Irakurrienak

1. El guardián invisible / Dolores Redondo
2. Legado en los huesos / Dolores Redondo
3. Dispara, yo ya estoy muerto / Julia Navarro

1. Buscando plan_ / Jeff Kinney
2. ¡Esto es el colmo! / Jeff Kinney
3. La cruda realidad / Jeff Kinney

Gaztelania : Ikusienak

1. Las brujas de Zugarramurdi
2. Los amantes pasjeros
3. El tiempo entre costuras

1. Hello Kitty y sus amigos
2. Érase una vez el cuerpo humano
3. Toopy y Binoo

Gaztelania : Entzunenak

1. Los número 1 de la música española año a año (1978-2008) / Varios
2. Tanto / Pablo Alborán
3. En directo desde el Teatro Arriaga / Fito y Fitipaldis

1. Lazy Town
2. Peppa: 2ª temporada, 1ª parte, vols. 5 y 6
3. Cuentos animalantes: cuentos para escuchar

Euskara : Irakurrienak

1. Nevadako egunak / Bernardo Atxaga
2. Arian 1: Euskara Ikasteko Metodoa
3. Zaindari ikustezina / Dolores Redondo

1. Txomin ospitalean / Liesbet Slegers
2. Txomin ilea mozten / Liesbet Slegers
3. Txomin amonarekin hegazkinean / Liesbet Slegers

Euskara : Ikusienak

1. Urte berri on amona!
2. Kutsidazu bidea, Ixabel: filma eta telesaila
3. Sentitu, pentsatu, ekin!

1. Triki, traka, tron
2. Zazpikoloroa
3. Sentitu, pentsatu, ekin!

Euskara : Entzunenak

1. Ken Zazpi & Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
2. Deserriko kantak / Eñaut Elorrieta
3. Azukre koskorak / Ruper Ordorika

1. Bizipoza / Pirritx, Porrotx eta Marimotos
2. Sentitu, pentsatu, ekin!: sinfonikoa / Pirritx, Porrotx eta Marimotos
3. Irrien lagunak / Pirritx, Porrotx eta Marimotos